

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Munduaren itzulia 18 ipuinetan

Antton Irusta

ELKAR

156 orrialde

10,90 euro

Mundua ipuinen bidez ezagutzeko

Antton Irustak munduan barrena bizi diren haurrak nolakoak diren eta zer ipuin ezagutzen dituzten jakin nahian dabiltzan hamar urte-tik aurrerako neska-mutilentzat idatzi du *Munduari itzulia 18 ipuinetan*. Narrazio bakoitzaren aurretik, aukeratutako herriko gaztetxo batek egiten du bere buruaren eta bizi den familia eta herriko ohituraren aurkezpena. Adibidez, Alenuska Moskuko auzotegi batean bizi da, balleta ikasten ari da, eta aztia izan nahi zuen nekazari pobreaken istorioa kontatzen du. Raine berriz, Finlandiako familia laponiar bateko semea dugu, eta umerik gabeko senar-emazte

arantzaleei gertatutakoa ematen digu aditzera. Eta Ghana zatatsuan bizi den Naakuk, Kiboko hipopotamoaren gorabeherak azaltzen dizkigu. |

Luzien Etxezaharretaren gogoetak

Animalietatik batek ere ez du mintzorik baizik gizonak, dio esatera zaharrak. Eta egia borobila ez izan arren –bada hizketan dakienik–, onartu beharko dugu haiek ez digutela mundua kontatzen baina *jasaten dute, guk bezala, abereak garenaz gero* –Luzien Etxezaharretak dioen moduan–. Eta zehatz-mehatz gertatzen zaiena agertu ezin diguten horiek iradokitzen dizkioten gogotez blai dago, hain zuzen ere, Etxezaharretak Maiatz argitaletxean plazaratu duen *Inter porcos. Kronika aberezaleak*. Errepide batetik zihoala hilda aurkitutako katu baten begiek eragindako pentsakizunak; txerriari dion maitasuna; Auschwitzeko deportatuen gisara tren batean hiltzera zeramatzen aratxeen kopetek eta muturrek sortutako hunkipena; bele beltzari euskal literaturan sortutako irudi ezkorren aurrean, *biba beleak!* aldarrikatzea... |




Inter porcos. Kronika aberezaleak

Luzien Etxezaharretak

MAIATZ

150 orrialde / 15 euro



Charles Darwin.

Charles Darwin / Francis Darwin

GAIK

428 orrialde

24 euro

Darwinen autobiografia eta semeak aukeratutako gutunak

Joan Ignazio Abrisketak euskaraturik plazaratu du Gaiak argitaletxeak *Charles Darwin. Autobiografia eta gutun hautatuak* izenburuko liburua. Bertan agertzen dira geologian, botanikan eta, batik bat, eboluzioaren eta hautespen naturalaren gaineko teoriarekin zientziari egindako ekarpenengatik gogoratua den Charles Robert Darwinen autobiografia. Bere ilobentzat, argitaratzeko inolako asmorik gabe, zientzialariak idatzitako autobiografia xume bezain polita dugu hauxe. Bestalde, Darwinek bere garaiko zientzialari, naturalista, senide, lagune eta pertsona ezezagunei idatzi zizkien gutunak ere bildu ditu liburuak, haren seme zen Francis Darwinen 1892an kaleratu zen libururako espreski aukeratutakoak. |

Aitor Aranak, gaztetxoentzat

Hamar urte-tik aurrerako haurrei zuzendua dago Aitor Aranak Ibaizabal argitaletxearen bidez kaleratu duen *Lagun berezi bat*. Bederatzi urte zituenean jasandako agertzen ditu hartan narra-tzaileak. Baserri bateko semea, hamalau urteko anaia nagusia baino ez zuen izan lagun ordura arte. Denik hurkoenik hurkoena zen anaia berarentzat. Baina bakarrik gelditu behar izan zuen, anaia hori Gasteizko ikastetxe batera joan zenean. Harrez geroztik mutikoa beldur zen, ikastolako astakiloenek zer egin ziezaioketen pentsatuz, bakarrik zegoela ikusterakoan. Eta gauzak gehiago okertu zitzaizkion, aldameneko etxera etorritako bizilagun berrien portaera nazkagarria zela-eta. Orduan, lagun bat aurkitu zuen basoan, nahiko berezia; baina hartaz etxekoei hitz egin zienean inork ez zion sinestu benetakoa izan zitekeenik. |




Lagun berezi bat

Aitor Arana

IBAIZABAL

92 orrialde

9,80 euro



Sagarrak
Euzkadin
Inazio Mujika
Iraola
ALBERDANIA
118 orrialde
14 euro

Bilbo beregain izan zen azken gau hartan

Gerra Zibilaren 70. urteurrenean kaleratu zen *Sagarrak Euzkadin. Manzanas en Euzkadi* liburu berezia. 1937ko ekainean faxistak Bilbon sartzeaz zeudela, agintariek jada handik alde egin zuten. Inazio Mujika Iraolaren kontakizunak hustsik geratutako Carlton hotela zaintzen zegoen gudari baten eta gerraren berri ematera etorritako kazetari ingelesaren artean sortutako adiskidetasuna islatzen du. Honi, Gerardo Markuletak gaztelaniaz egindako bertsioa eranstean zaio. Eta narrazio biak osatzeko Bidasoa Institutuko eta Blasco Olaetxea bildumako argazki aukeratuak gehietu dituzte,

sufrimendua, borroka, malakoak, beldurra eta itzaropena agertzen dutenak. **I**

Prest al zaude, Kroko? Etxeko txikienek janzen ikas dezaten

“Koko-moko-koko... Prest al zaude, Kroko? Ez! Praka bakeroak janzen ari naiz”. Horrela ekiten dio etxeko txikienek poz-pezik uzteko adina ezuste politez betetako *Prest al zaude, Kroko?* liburuxkoak. Orriz orri, krokodilo laguna ondo janzen nola doan ikusteaz gainera, orri lodi bakoitzetik ateratzen diren benetako objektuekin liluratuko da haurtxoa: izan ere, leihoa, bakeroak, ohea, jertse horia, beroki gorria, ispilua eta dagoeneko guztiz jantzita lagunengana lasterka doan Kroko ia eskuartean ikus ahalko ditu. **I**

Prest al zaude?

Jo Lodge

IBAIZABAL

18 orrialde / 11,90 euro



ITZIAR MADINA

«Gure iraganetik hainbat gauza berreskuratut behar genituzke»

Edgar Morinen esaldi batekin ematen diozu hasiera zure liburuari. Zergatik?

“Beste eguzkia, heriotza”, bai. Egoki iduritu zait gaurkotasun modernoaren arteko tirabiraz ari den nire nobelaren sar hitza gisa. Esaldiak dio eguzkiak bezala, heriotzak ere itsutzen gaituela. Beldurtzen, sarri. Gure zaharren heriotzarekin batera, kultura, jakintza eta izate oso bat eskapatzen zaigula iduritzen zait, eta horri ez diogula aurrez aurre begiratu nahi. *L'homme et la mort* liburuan, Morinek erakusten du jende arkaikoengan hots, gure arbasoengan heriotza bizitzaren parte zela.

Nola laburbilduko zenuke *Beste eguzkiaren* mamia?

Eraikuntza eta higiezin enpresa batek bereganatu nahi duen herrian elkar topo egiten duten artzain erretiratu baten eta *okupa* batzuen arteko hartu-eman delako esanez. Badaiteke hori aitzakia izatea arkaikotasun eta gaurkotasun modernoaren arteko tirabiraz hitz egiteko. Mundu globalizatutik at deus gutxi dagoela badirudi ere, zerbait egon badagoelako esperantza daukat. Liburuan gurutzatzen diren gaietatik bat, beraz, hori litzateke, gaurko munduari buru egiten ahal zaiola.

Tradizioaren aldeko apustua al da zeurea?

Tradizioa baino arkaikotasuna dei nezake nik *Beste eguzkian* sakontzen saiatu naizena. Horrek erran nahi du gure iragan historikora begiratu behar dugula eta handik hainbat gauza berreskuratut: berdintasuna ematen zigun inguruaren kontzeptua, adibidez, elkartasuna jokamolde naturala egiten zuena. Alegia, iragana idealizatu gabe, iturri zaharretik ura beti berri mantentzen saiatu beharko genukeela.



IMANOL OTEGI / A.P.

Hustutako herri bat berriz zutik jartzeko ahaleginak

Bere bizitzako urte gehienak mendian eman dituen Domingo artzain zaharrak hartutako

erabakiarekin ematen dio hasiera Itziar Madinak *Beste eguzkia* nobelari. Beti zaindu izan dituen kabalak bertan utzi eta Miarritzera joatekoa da, mende erdi bat atzera jendez hustu zen bere sorterriari azken bisita eginaz. Izan ere, nekazal leku hura, enpresari talde prestu batek Euskal Herriko goi mailako turismo berdearen ikur bihurtu nahi luke, eta bilera batera dei egin diote artzainari, itxuraz hutsik dagoen herri horren azken biztanlea delako; baina bereziki, lur haien %90a komunala dela ziurtatzen duten txostenen jabea izateagatik. Domingo zaharra da, eta ez zaizkio enpresarien asmoak oso txarrak iruditzen, bere herri hilari nolabaiteko bizia eman baitiezaioteke. Baina sorterri ber-

egileari galdezka



Beste eguzkia
Itziar Madina

TXALAPARTA

192 orrialde

16 euro

taratzen denean ezusteko galanta hartuko du, herriko etxe batzuk berreraiki eta duela hamar urte bertan pozik bizi direnekin topo egingo baitu. Jende gaztea da, eta arrotz egiten zaizkio haien hizkera, ohitura libreak eta janzkerak, baina sinpatia die era berean, aurrerapenak emandako onurak baztertu gabe, iraganean mantendu ziren ohitura onei jarraiki bizi nahian dabiltzalako... **I**